

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure gimnasioak jarduera jakin batzuk burutu beharko ditu bai hornitzaile eta bezeroekin harreman ona edukitzeko eta ondorioz etekinak izateko.

Horretarako makina enpresarekin hilero kontaktua izango dugu eta makinekin arazoren bat badago, enpresarekin kontaktatu eta lehenbailehen arazoa konpontzera etorriko dira. Hiru hilabetetik behin makinen errebisioa egitera etorriko dira. Elektrizitate enpresarekin ere kontaktua maiz mantentzen saiatuko gara, bi hilabetetik behin edo, askotan telefonoz edo skype bidez mantenduko dugu kontaktua. Aseguru etxearekin, bankuarekin eta publizitate enprekin ere behar denean bilerak egingo dira. Guzti honetaz, administrazioko langilea, Naiara, arduratuko da.

Bezeroekin gimnasioan bertan mantenduko dugu kontaktua. Sarrerako langileari, administrazioari buruzko zalantzak, kontsultak egiteko askatasuna izango du, gainera bai sare sozialen edo korreoaren bidez galderak egiteko eta dudak azaltzeko aukera edukiko du. Bai sare sozialetan bai webgunean gure autofinantzazioari buruzko informazioa azalduko diogu bezeroari eta makinetan ere hauen funtzionamenduari buruzko informazioa azalduko dugu kartel batzuen bitartez. Gimnasioko kontuak ere, administrazioko langileak eramango ditu oso garrantzitsua baita kontuak kontrolpean izatea.

Gainera, bezeroek beraien jarduera fisikoari buruzko informazioa eta dudak azaltzeko aukera izango dute entrenatzaileak gimnasioan bertan egongo direlako, eta entrenamendu pertsonalizatu bat nahi badute ere hauek prestatu egingo dizkiote, lehenengo hilabetean dohainik izango da eta ondoren, hilero kuota pagatu beharko dute. Entrenatzaileak Alex eta Haritz izango dira eta gimnasioan bertan laguntzeaz gain, hauek sare sozialak kudeatu eta bertan publizitatea egiteko askatasuna izango dute.

Bestalde, garbitzaileen lana ere ezinbestekoa da. Bezeroak erakarri eta mantentzeko beharrezkoa baita gimnasioak itsura txukuna eta erakargarria izatea, horregatik, Xabier eta Ainhoa garbiketaz arduratuko dira, bai bi aldagela, dutxen eta komunaren garbiketaz. Gainera gimnasioa bera garbi mantentzeaz eta egunaren bukaeran material guztia bere lekuan dagoela bermatuko dute.

Langile guztien artean ere erlazio egokia egotea derrigorrezkoa da, langile bakoitza lanean gustura egoteak produktibitatea handiagotzen baitu. Horretarako, langileen artean bi astetik behin bilera bat egingo da, enpresaren egoera zein den ikusteko eta hobetu behar diren aspektuak hobetzeko.